



DANI BLANCO

Angel Erro

◆ IDAZLEA

Idazlearen egiak

IDAZTEAK gehienetan tranpak ekartzen ditu berarekin (tranpari euskalki batzuetan artea deitzen zaio baina ez dut hortik joko). Kalkuluak eta amarruak. Irailetik hasi naiz *Berrian* egunero zutabe bat idazten. Hilabete bat lehenagotik ekin nion lehendabiziko kolaborazioa prestatzeari. Horrelakoetan gure zutabegileek askotan egiten dituzten oporretatik etxeratzearen kontaketen parodia osatzeko apeta nuen, gertaera hurbil bat gogoan. Azkenean, erabaki nuen bezperan gertatutako zerbaitez idatziz hasi behar nuela. Baina Etxera izeneko testutxoia umezurtz gelditu zitzaidan ordenagailuko karpeta batean.

Idazlea izateak gehienetan handiustea dakar berarekin. Behin testu bat eginda, ezinezkoa zaigu irtenbidea ez ematea. Eta Burlatako *Axular* aldizkaritik zer-bait eskatu zidatenean aukeran etorri zitzaidan. Hona zutabe delakoa:

Etxera

NIRI ere gertatu zait atzerrian egon eta nongoa naitzen azaldu behar izatea. Orobat gertatu zait, behin Euskal Herrian naizela, geo-pedagogia nazionalaren pasadizoa puztu edo apaindu behar izatea, nire entzuleriari atsegin gehien emateko. Bada, kit ahozko euskal literatura garaikideko azpi-genero garrantzitsua dela, zaindu eta ongi landu beharrekoa.

Inoiz bizi ez dudana da istorioaren subjektu pasiboak, gu nongoak garen irakasten diogunak, *Basque Country*-ren berri izatean, zer sentitzen duen. Berriki arte.

Omahako aireportuan Europarako bidea hartu nuen. Hegaldia atzeratu eta areto batean sartu gintuzten itzaroteko. Ni nire liburutxoarekin ez nintzen gehiegi asaldatu. Hortik gutxira neska bat ingeles eskasean hasi zitzaidan galdezka, ea zer esana zuten, noiz abiatuko ginen. Nik ingelesez azaldu eta berak bere taldekoei euskaraz errepikatu. Hara! Duda egin nuen zer egin. Baina ezin nuen aukera galdu: *“And where are you from?”* galdetu nien, erabat itxurazkoa ez zen jakin-minez. Zehatz-mehatz azaldu zidaten nire herria-

ren historia, ezagutzen nuenaz pixka bat bestelakoa, ederragoa. Niri ez zidaten galdetu nongoa nintzen ni.

Frankfurten hegazkin banatan itzuli ginen, beraiek eta ni, etxera.

Denborak gehienetan zentzatzeari dakar berarekin. Aurrekoa idazten emandako, gehienez jota, 60 minutuak (edo, nahiago bada, ez argitaratzea erabakitzen emandako hilabetea) oso ongi galdutzat eman nitzake, inon atera ez banu. Hortaz aparte, argitaratzeak gehienetan ustekabea dakar berarekin. Zeinek esanen zidan, Erdal Herriko erdigunean, eta alferlanean, argitaratuta, oihartzunik eta erantzunik izanen zuenik, Aretxabaletatik? Hauxe da *Axular* aldizkarikoek pasadidaten gutuna:

Etxera dela eta

ZUEN azken alea irakurrita, Angel Erroren artikulua-ekin topatu gara. Bertan neure burua eta nire koadrilla erraz ezagutu ditut eta ez onerako. Ni ez naiz nor

idazle batek bere lana nola egin behar duen esateko, baina zehaztapen batzuk egiteko behar nago. Eskertuko nuke hitzok hurrengo alean argitaratuko bazenituzte.

Asaldatu ez zela esaten du Errok eta megafoniako ingelesa ezin ulertuta berari galdetu geniela. Zer ikustekorik ez. 1)

Ni hiru urtez bizi izan naiz lanean Nebraskan eta, jakina, ez dut ingelesa ulertzeko arazorik. 2) Bera guri begira-begira zebilen aspaldidanik, ia guk bestelako asmorik sumatzeraino. Megafoniatik zer esan zuten galdetu zigun berak, euskaraz. 3) Bi segundotara azaldu zigun zutabegilea zela. 4) Hegazkin berean iritsi ginen

Loiura. 5) Berak galdetu zigun nongoak ginen, bai, eta helbidea, gure bueltatzeaz idatzi behar zuen zutabearen kopia guri pasatzeko. Zertara datoz hainbeste gezur? ■

Loiura. 5) Berak galdetu zigun nongoak ginen, bai, eta helbidea, gure bueltatzeaz idatzi behar zuen zutabearen kopia guri pasatzeko. Zertara datoz hainbeste gezur? ■

Loiura. 5) Berak galdetu zigun nongoak ginen, bai, eta helbidea, gure bueltatzeaz idatzi behar zuen zutabearen kopia guri pasatzeko. Zertara datoz hainbeste gezur? ■



Antton Olariaga

